	F31	B1409277K		BASAURO UDALA	AZBARREN Auz., 016	77,61 m²		77,61 m²	0,69%
16			11350	50% BASAURO UDALA (16)					
18			22905	50% BASAURO UDALA (18)					
	F32	B1409278S		BASAURO UDALA	AZBARREN Auz., 012	77,62 m²		77,62 m²	0,69%
12			19192	50% BASAURO UDALA (12)					
14			12674	50% BASAURO UDALA (14)					
	F33	B1409278S		BASAURO UDALA	AZBARREN Auz., 008	80,46 m²		80,46 m²	0,71%
8			3059						
8			21669	50% BASAURO UDALA (8)					
10			3053	50% BASAURO UDALA (10)					
8BIS	F34	B0404369U	3059	BASAURO UDALA	AZBARREN Auz., 008BIS	26,71 m²		26,71 m²	0,24%
24B	F35		PAT07_0052 / 2300.01	BASAURO UDALA Eusko Jauriritzari eskuratua Nahitaezko Desjabetzearen bitartez	MATXITXAKO / SARRATU / AZBARREN / LEÓN / KANTABRIA kaleak	19.443,00 m²		2.411,07 m²	21,37%
HIRIGINTZA-ERAIGARRITASUNAREN ESKUBIDEA DUTEN LURSAILAK							11.281,00 m²	100,00%	
JABARI PUBLIKOA							0,00 m²	0,00%	
GUZTIRA E.U.34.2.							11.281,00 m²	100,00%	



Bilbon, 2.019ko martxoan

Arantza Ruiz de Velasco Artaza

D Dokumentua:

URBANIZATZE-AURREGISTAMOA

D.1. AURREGITASMOAREN XEDEA

Ondoko Urbanizatzeko-Aurregistasmoak Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzorua eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 153. artikuluan aurreikusitako eduki tekniko-urbanistikoa zehaztea du helburu, "J-Azbarren" esparruan etorkizuneko faseetan garatu beharko diren urbanizazio-eskemak, kalitate memoria eta aurrekontu estimatu bat xedatuz.

Urbanizatzeko-Aurregistasmo hau garatzerako orduan esparrurako STOA Ingenieritzak iada idatzita zuen aurregistasmoa hartu da oinarritzat, eremua bi egikaritze-unitateetan banatu eta etxebizitza kopuru handiago bati erantzungo dien zuzkidurak bermatuko dituen aldaketak barneratu behar izan badira ere. Ordea, aurregistasmo hau orientagarria dela azpimarratu behar da eta hemen jasotzen den informazio guztia esparrua garatzeko idatzi behar den Urbanizazio-Proiektuak aztertu eta xehetuko duelarik.

"G Dokumentua: Dokumentazio-grafikoa"-k Urbanizatzeko-Aurregistasmoari dagozkion planoak jasotzen ditu:

U.- URBANIZATZE-AURREGITASMOA

- U.01.- Egungo egoera
- U.02.a.- Egungo egoera: ur-edangarriaren banaketa eta ur-beltzen eta euri-uren saneamendua
- U.02.b.- Egungo egoera: elektrizitate, argiteria publiko eta telefonía sareak
- U.03.- Eraispinak
- U.04.- Irudikapen planoak
- U.05.- Altuera erreferentziak
- U.06.- Bide-sarea
- U.07.1.- U.E.34.1./U.E.34.2. Ur-edangarriaren banaketa sarea
- U.07.2.- U.E.34.1./U.E.34.2. Ur-beltzen saneamendu sarea
- U.07.3.- U.E.34.1./U.E.34.2. Euri-uren saneamendu sarea
- U.07.4.- U.E.34.1./U.E.34.2. Elektrizitate sarea
- U.07.5.- U.E.34.1./U.E.34.2. Argiteria publikoaren sarea
- U.07.6.- U.E.34.1./U.E.34.2. Telekomunikazioen sarea
- U.07.7.- U.E.34.1./U.E.34.2. Gas naturalen banaketa sarea

- U.07.8.- U.E.34.1. Hondakinen bilketa neumatikoaren sarea
- U.07.9.- U.E.34.1./U.E.34.2. Pabimentazioa
- U.08.a.- Ebaketak: zeharkakoak
- U.08.b.- Ebaketak: luzetarakoak

D.2. EGUNGO AZPIEGITUREN ETA ZERBITZUEN DESKRIBAPENA

Basauriko Hiria Antolatze Plan Orokorren aldaketa puntualaren arautegiaren 8.1.19.1. artikuluan zehazten den moduan, Azbarren esparruaren jarduketa integratuak 29.438 m²-ko azalera du.

Egikaritze-urbanistikorako, Urbanizatzeko Jarduketa-Programa honetatik esparrua bi egikaritze-unitateetan mugatzea proposatzen da:

- E.U.34.1. egikaritze-unitatea.
- E.U.34.2. egikaritze-unitatea.

Egun, jarduketa-esparruaren barnealdean kale perimetralen altuera berean kokatzen den kamioentzako aparkaleku bat dago mendebaldean eta eraitsi beharreko etxebizitza eraikina Uribarriko ingurabideari paralelo. Egungo etxebizitzeten sarrera, esparruaren iparraldean daduen burdinbideen altuera berean dago, kale perimetralak baino 4 metro beherago.

Gaur egun jarduketa-esparruak ondoren deskribatuko eta U.02.a eta U.02.b planoetan (azpiegituren egungo egoera) definitako azpiegitura eta zuzkidurak ditu.

a) Komunikazioak

Komunikazioen sistema orokorra, Udal Bide Sistema Orokorraz (Bizkotxalde adarra eta Uribarriko ingurabidea) eta Tokiko Bide Sistemaz osatzen da (Kantabria kalea). Sistemek irisgarritasun eta mugikortasun hiritarra bermatzen dute, izan esparruaren barneko irisgarritasuna ziurtatzeko edo Foru Aldundiko Bide sarearekin komunikatzeko.

b) Ur-edangarriaren banaketa sarea

Hartunean ahalbidetzen duen ur-edangarriaren banaketaren sarerik gertuenekoa, urbanizatu beharreko Uribarri ingurabidearen espaloiean aurkitu daiteke, bertan 100 diametroko FD tutu bat baitago.

c) Ur-beltzen eta euri-uren saneamendu sarea

Orokorrean, Basaurin dagoen saneamendu sarea banatzailea da. Uribarriko ingurabidean hurrenez hurren, 315mm-etik 500mm-rako diametroak dituzten euri-uren eta ur-beltzen hodi-biltzaileak daude eta 315mm-dun beste hodi bat, denak burdinbideak (FEVE/Euskotren) zeharkatzen dituen eta 630mm-ko diametroa duen hodi-biltzaile bakarrean elkartzen direlarik, Cervantes etorbideruntz.

d) Energia elektrikoa

Esparruaren barnean, non erdi mailako tentsioaren aire-linea eta transformazio-zentru bat dauden, nahiz esparruren kanpoan Bizkotxalde adarrean aurki daitezke azpiegitura elektrikoak egun.

e) Argiteria publikoaren sarea

Jarduketa eremuaren espaloi-perimetral guztian argiteria publikoari dagokion kanalizazioa eta farolak daude.

f) Instalazio telefonikoa

Telefonia sarearen hartuneen eskakizunak, azalpenak eta gomendioak ematea enpresa hornitzaileari dagokio. Egun, Uribarriko ingurabidean kanalizazio bat dago eta bertatik eskaini ahalko da zerbitzua.

g) Gasaren sarea

Aurregitasmo honen esparrurako proiektatuko den sareak Basauriko gas distribuziorako sarearearekin egingo du bat, 110 mm-ko diametroa izan duten polietilenoazko tutuez eta sarea kontsumo puntuetara lotuko duten 63 mm-tako tutuez.

h) Hiri hondakin solidoen bilketa pneumatikoaren sarea

Hiri-hondakin solidoen bilketa sare nagusia eraiki berria da Basaurin, eta Uribarriko ingurabidearen alboan dagoen Uribarri parkean dago bilketa pneumatikoaren zentrala.


D.3. BURUTU BEHARREKO URBANIZAZIO-OBREN DESKRIBAPENA

Urbanizatzeko aurregitasmo honek Hiria Antolatzeko Plan Orokorrek aldaketak "J-Azbarren" jarduketa integraturako aurreikusitako hiri-sareen berezko azpiegiturak definitzeaz gain, udalerriko sare eta instalazioetara nola konekatatu, bide-azpiegitura eta kalifikaturiko espazio libre zein berdeak ere zehaztuko ditu.

Burutu beharreko urbanizatzeko-lanen hurrenkera bat ezarri da, ondoko kapituluetan banatzen dena:

- Eraikinen eta asfaltaturiko gunetako zolarrien eraispena.
- Landaretzak estaltzen dituen partzelak sasiz garbitu eta lurra batu.
- Euste-hormen exekuzioa eta lur-mugimenduak.
- Aizpigitura municipalen eta ez-municipalen gauzatzea.
- Urbanizazioko zoladuren exekuzioa.
- Argi puntuen, hiri-altzarien eta desnibelen aurrean babes-barandillen kolokazioa.
- Gune berdeen gauzatzea eta kaltetutako guneak berlandatzea.
- Gunearen garbiketa eta obra-kanpamendua kentzea.

Bide-azpiegitura



Aurreikusitako bide-sareak oinezkoentzako espaloi eta ibilgailuentzako galtzadaz osatzen den tarteak ditu.

Jarduketa integratuaren iparraldean, burdinbideei paralelo izango den kale berri baten gauzatzea proiektatu da (EJE-1), Bizkotxalde adarra, Kantabria kalearekin (EJE-2) komunikatuko duena. Bide berri hau egikaritze-unitate bakoitzari dagokion bi faseetan gauzatuko da.

Kale berriak 316 m-ko luzera eta Bizkotxalde-Kantabria kalea norabidean beheruntz doan luzetarako malda izango ditu, %1,33-koa. Hori dela eta kalea lubeta baten gainean eraiki beharko da, horretarako derrigorrezkoa izango delarik, burdinbideen alboan, hau da, kalearen ezker aldean, euste-horma bat eraikitzea.

Bide-berriaren ezker aldeko marjinak, gertuen dagoen FEVE-ko errailaren ardatzarekiko 9,20 m-ko tarte du.

Kale berriaren ebaketa tipoa, zabalera aldakorra duen espaloi batez, iparraldeko aparkalekuez, 6,00 m-ko zabalera iraunkorra duen galtzadaz eta baterian antolatutako aparkalekuez osatzen da.

Uribarriko ingurabidea eta Kantabria kalearen arteko bidegurutzearen aldaketa proiektatu da ere, bide berria gehitzearen ondorioz (EJE-ROTONDA). Horretarako, biribilgune baten gauzatzea aurreikusi da, gaur egun Uribarriko ingurabidea eta Kantabria kalearen bidegurutzea aurkitzen den puntu berean. 8,50 m-ko barne-erradioa, 15,00 m-ko kanpo erradioa eta 7,00 m-ko zabalera iraunkorra izango ditu, luzera handiko ibilgailuak ere biribilgunean biratu dezaten.

Linean eta baterian antolatutako aparkaleku plaza gehiago gehitu dira Uribarriko ingurabidean.

Burdinbideei paralelo aurreikusi den bide berriak eta aparkaleku erabilerara bideratutako guneak, zoladura malgu-zurrun batez gauzatuko dira: 25 cm-ko zagor-legar trinkotutako oinarri bat, 30 cm-tako hormigoi armatua eta 6 cm-tako arido ofitikoa duen D-12 berotan isuritako aglomeratu asfaltikozko erroadura kapa.

Bideen diseinua osatzen duten elementuak, izan baldosak, zintarriak, zoladurak eta instalatu beharreko hiri-altzariak, alboan dauden urbanizazioetako partidak oinarritzat hartuz proiektatuko dira.

Espazio-libreak

Kale berriaren espaloia-libre kontsideratu du esparruaren ordenazioak eta NJ-3, NJ-4, NJ-5 eta NJ-6 etxebizitza eraikinetarako ezkaratzen sarrerak ahalbidetuko ditu. 8,10 m-ko batez-besteko zabalera izango du, hasi bide-azpiegituraren ertzetik eta bizitoki eraikinetaraino.

Jarduketa-eremuaren perimetroan egun dauden espaloien zabalkuntza ere proiektatu da. Espaloia, hegoaldean Uribarriko ingurabideari eta mendebaldean Bizkotxalde adarrari dagokiona da eta zabalera aldakorrekia izango da berau, gutxienez 4,00 m-ko zabalera errespetatuko bada ere.

Espaloien eta gune peatonalen zoladura, deskantsurako eta jolaserako guneak, sarbide eta zirkulaziokoekin bereiziko dituen zolaketa mota desberdinekin diseinatu da. 15 cm-tako zagor-legar baten gainean 15 cm-tako hormigoi kapa isuriko da. Espaloiak 12 cm-z bereiziko dira bideen kotetik eta granitozko zintarriak ezarriko dira gune asfaltatu eta zolatuen artean. Espaloien perimetro guztian granitozko zintarri lurperatuz inguratutako txorkoak ezartzea aurreikusi da.

Erdiguneko espazio libreari dagokionez, jardinera, egonleku, jolasgune eta pasaguneen konbinazio gisa diseinatu da. Berdeguneen parterre eta zuhaitzak hiritarrek giro lasai eta atsegin batez goza dezaten proiektatu dira, baita jarduketa-esparruan dagoen kota diferentzia bera leuntzeko ere. Parterreek jolasgunea bidegorritik bereizten dute. Bidegorria, Sarratuko arean aurreikusita dagoen tartearekin lotzen da jarduketa eremuaren mendebaldean eta esparrua gurutzatzen du, ekialdean Ariz-Basauriruntz jarraipena emateko zain.

Bidegorria arido ofitikozko kolore gorriko D-8 beroan isuritako aglomeratu asfaltiko batez zolatzen da, eta honek 4 cm-tako hormigoizko zolarria du oinarri. Bidegorria granito mekanizatuzko alde banatan kokaturiko zintarri lurperatuz mugatuko da.


Gune berdeak eta lorategiak, sustraiak zabalean zabaltzen dituzten zuhaitz espeziez landatuko dira, lur-arras azpiko solairuei kalterik ez egiteko modukoak izango direlarik.

Urbanizazio-Proiektuak zehaztuko ditu erabiliko diren espezieak eta espezie bakoitzeko zuhaitz kopuruak, baina inoiz ezingo dira Hiria Antolatze Plan Orokorra esparrurako aurreikusitako etxebizitza bakoitzeko zuhaitz edo zuhaixka bat baino gutxiago izan (345 etxebizitza = 345 zuhaitz).

Hiri-azpiegiturak: oinarritzko ezaugarriak

Urbanizazioko zerbitzu propioak barnean hartzen ditu, ur hornikuntza, hiri-saneamendu eta drenaiaren saneamendu sare-banatzailera, argiteria-publikoa eta hondakinen bilketa (udal jabetza duten instalazioen ikuspuntutik), baita udalarenak ez diren sareak ere, hala nola, telefonía eta komunikazioen sarea (Telefónica eta Euskaltel), elektrizitate sarea (iberdrola) eta gas naturalaren sarea.

a) *Ur-edangarriaren, ureztatze eta suteen aurreko babesaren banaketa sarea*



Esparruaren barruan zein kanpoan, Uribarriko ingurabidean eta Kantabria kalean, aurkitu daitezkeen adarrak burdinurtu harikorreko tutueriaz osatzen dira gehienbat, FD 100 mm-ko diametroa eta lotura-juntura estandarra dutenak.

Hori dela eta, sare motako ur-edangarriaren banaketa sarearen eraikuntza proiektatu da (RAMAL A), presio uniforme bat, eta matxuraren bat izanez gero, sarera konektatzen diren erabiltzaile gehienek hornikuntza bermatuta geratzeko moduan. Sare honetan ebaketa-balbula eta deskarga-balbula bat aurreikusi da bi egikaritze-unitateen mugan, E.U.34.2. unitatea sarera batu dadin E.U.34.1. unitateko sarea iada martxan dagoenean.

Gaur eguneko banaketa sarearekiko konexioetan 150 mm-ko barne-diametroa duen ebaketa-balbula baten kokaketa aurreikusi da. Sarearen gainerako luzeran deskarga-balbulen instalazioa aurreikusi da sarearen hustutzea ahalbidetzeko.

Etxebizitzetako hartuneak 80 mm-ko barne-diametroa duten burdinurtu harikorreko tutueriaz burutzen dira eta hartune bakoitzaren bukaeran 80 mm-ko barne-diametroa duen ebaketa-giltza kokatuko da.


Ebaketa-balbula zein deskarga-balbulak hormigoi aurrefabrikatutako kutxatiletan kokatuko dira, eta kutxatilek bi hizkuntzetan "Hornikuntza" jarriko duen D-400 Rexel motako burdinurtu harikorreko tapak izango dituzte.

Suhiltzaileen erabilerakoak izango diren 100 mm-ko diametroa izango duten hidranteak kokatuko dira elkarrengandik gehienez 200 m-ko distantzia batean eta 40 mm-ko diametrodun ur-harguneak beraien artean 50 m-ko distantziaz banaturik.

Jarraian sare motako instalazioa osatzen duten elementuen zerrenda ageri da, proiektaturiko instalazioaren plano eta udal-xehetasun tipoekin bat:

- FD Ø 150 mm burdinurtu harikorreko tutueria.
- FD Ø 80 mm-ko etxebizitza eraikinetarako hartuneak.
- Diametro desberdinetako ebaketa-balbulak.
- Diametro 80 mm-ko bentosak.
- Hidrante lurperatuak.
- Ur-hargune lurperatuak.

b) *Ur-beltzen saneamendu sarea*



Egun, jarduketa esparruaren inguruko saneamendu sarea banatzailea da, eremuaren ekialdean dagoen euri-uren saneamendu sarearekin elkartzen denez, sare bateratua bilakatzen dena. Burdinbideak zeharkatzen dituen sare bateratua 300 mm-ko kanpo diametroa duen SN-8 polietileno korrugatuzko kolektore batek osatzen du.

“J-Azbarren” jarduketa-integratuko ur-beltzen saneamendu sare berria banatzailea izango da guztiz eta lau kolektorez osatzen da.

Lehenak, A KOLEKTOREAK, burdinbideen paralelo egongo den kale berriaren alboko etxebizitza eraikinen urak jasoko ditu, NJ-3, NJ-4 eta NJ-5 eraikinenak hain zuzen. Azken eraikina ordea, beranduago batuko zaio kolektoreari, 34.2. egikaritze-unitateari baitagokio. Kolektorea, eremuaren erdigunean kokatzen den bidegorriaren azpian kokatuko da eta mendebalde-ekialde norabidea izango du, Uribarriko ingurabidean egun dagoen kolektorearekin batu arte.

Bigarren kolektoreak, B KOLEKTOREAK, Bizkotxalde adarraren (NJ-1) eta Uribarriko ingurabidearen (NJ-2 eta NJ-AD) paralelo diren etxebizitzek sortutako isuriak batuko ditu eta mendebalde-ekialde norabidea izango du A kolektorearekin topo egin bitartean.


Hirugarren kolektoreak, C kolektoreak, NJ-6 eraikinaren ur-beltzak jasotzen ditu eta bidegorriaren azpian mendebalde-ekialde norabideaz iragaten da, D kolektorera.

C kolektore eta egun dauden sareak laugarren kolektore batekin elkartzen dira, D kolektorea, honek burdinbideak zeharkatzen dituen egungo sare bateratua, banatzaile bihurtzen duelarik. Gaur egungo burdinbideen azpiko kolektorea euri-uren saneamendu sarera bideratzen da. Burdinbideen gurutzaketa makina zulatzaile batekin burutuko da eta 630 mm-ko diametroa duen 610 x 12,5 mm-ko soldadura helikoidalez loturiko ST37 altzairu txapazko tutua instalatuko da. Tutua 1,5 m-z luzatuko da burdinbideen mutur bakoitzean, puntu horietan erregistro-putzu bana jarri ahal izateko.

Kolektore berriak 315, 400 eta 630 mm-ko diametroa izango duten SN-8 polietileno korrugatuzko tutuz osatuko dira. Etxebizitzan hartuneak ere, ezaugarri mekaniko berak dituzten tutuz burutzea aurreikusi da eta hauek, 315 mm-ko kanpo-diametrozko tutuz eta C-250 burninurtu harikorreko tapa eta 50x50 cm-ko barne-neurriak dituzten erregistro-kutxatila gauzatuko dira. Lerrokadura aldatetetan, zein kolektoreen arteko lotura puntuetan, eta gehienez 50m-ro bi hizkuntzetan “Saneamendua” serigrafiatua izango duten garbiketa eta inspektzioarako erregistro-kutxatila egikaritutako dira.

c) *Euri-uren saneamendu sarea*

Euri-uren saneamenduko sei kolektoreren exekuzioa proiektatu da. Horietatik bik, (A eta B KOLEKTOREAK) egun dagoen sarearekin bat egiten dute Uribarri ingurabidearen erdigunean eta 34.1. egikaritze-unitateko saneamendu sarea osatzen dute. Hirugarren kolektore bat (D KOLEKTOREA), 34.2. egikaritze-unitateari dagokio eta Kantabria eta Uribarriko ingurabidearen arteko bilgunean dagoen kolektorearekin bat egiten du. C KOLEKTOREAK kale berriaren azalerako urak batzen ditu eta F KOLEKTOREAREkin batzen da. Azken hau, burdinbideak gurutzatzen dituen kolektorea da eta Uribarriko ingurabidean dagoen banatzaile motako kolektorea, Cervantes etorbideko saneamendu sarearekin konektatzen du. E KOLEKTOREA Uribarriko ingurabidean egin beharreko biribilgunearen gauzatzeak suposatzen dituen trazadura aldatetengatik aldatuko den kolektorea da.



A KOLEKTOREAK Bizkotxaldeko adarrean eta Uribarriko ingurabidean dauden etxebizitzek (NJ-1, NJ-2, NJ-AD) sortutako euri-uren isurketa jasoko du. B KOLEKTOREAK burdinbideen paralelo egingo den kaleko lehen hiru blokeen (NJ-3, NJ-4 eta NJ-5) eta jarduketa-esparruko erdigunean kokaturiko espazioaren isuriak jasoko ditu. D KOLEKTOREAK azken etxebizitza eraikina (NJ-6) eta espazio libreen bukaera saneatzen ditu. Burdinbideen paralelo den kale berriaren euri-urak, aparkalekuak eta galtzada banatzen dituen ertz-erreten batera biltzen dira. 34.1. egikaritze-unitatea burutzen denean, erretenean bildutako urak, lurzoru naturalera isuriko dira, nahiz eta 34.2. egikaritze-unitatearekin lotuko duen kolektore baten instalazioa aurreikusten den. Kolektore hau E.U.34.2.-koarekin lotzen denean, kale berriko euri-urak, banatzailea den F KOLEKTOREa isuriko dira.


Euri-uren ebakuaziora bideratutako kolektoreak, 630, 400, 315 eta 250 mm-ko kanpo-diametroa duten SN-8 motako eta polietileno korrugatuzko tutuez burutuko dira.

50x30 cm-ko orrazi motako sareta giltzarridun estolda zulo sifonikoak aurreikusiko dira eta 200mm-ko kanpo-diametroa duten SN-8 motako eta polietileno korrugatuzko euri-uren ebakuaziorako sare nagusiko tutuetara konektatuko dira.

Etxebizitzaren hartuneak ere, ezaugarri mekaniko berak dituzten tutuz burutzea aurreikusi da eta hauek, 315 mm-ko kanpo-diametrozko tutuz eta C-250 burdinurtu harikorrezko tapa eta 50x50 cm-ko barne-neurriak dituzten erregistro-kutxatila gauzatuko dira.

Lerrokadura aldaketetan zein kolektoreen arteko lotura puntuetan eta gehienez 50m-ro bi hizkuntzetan "Euri-urak" serigrafiatua izango duten garbiketa eta inspektzioarako erregistro-kutxatila egikarituko dira.

d) *Elektrizitatearen banaketa sarea*



Aurreikusitako etxebizitzak energia elektriko hornituko dituen sarea eremuaren hegoaldean dagoen Uribarriko ingurabidearen espaloia azpian egun dagoen erdi mailako tentsioko sarera konektatuko da. Konexio puntuan, erdi mailako tentsiozko bi juntura-joku burutuko dira, PPFV 12/15 KV 1 (3x50(mm² Cu, con HPR-Z1 12/20 kV 3 (1x150) mm² Al kableentzat.

Lur-arras azpiko hiru transformazio-zentru kolokatuko dira; bata Uribarri ingurabidearen erdiko puntuan (CT-1), bestea jarduketa esparruaren mendebaldean (CT-2) eta azkena, ekialdean (CT-3). Lehen bi transformazio zentruak 34.1. egikaritze-unitateari dagozkio (CT-1 eta CT-2) eta azkena 34.2. egikaritze-unitateari (CT-3).

TE linea elektrikoa hiru transformazio zentruetatik igarotzen da, hauek beraien artean lotuz "U.07.4-Sare elektrikoa" planoak adierazten duen moduan. Tentsio ertaineko kanalizazio hau Uribarri ingurabidearen erdian konektatzen da existitzen den sarera, egun dauden kutxatiletan egingo diren junturen bitartez.

Transformazio zentru bakoitza bi makina jasotzeko eraikiko dira, bakoitzean B2 sistemetarako 400 kVA bi transformadore (tentsio baxu eta ertaineko interkonexioak egiteko, tentsio ertaineko SF-6 2L + 2P motako zelda jokuekin) eta bakoitzak 400A-zko bost irteera dituen CBTI motako tentsio baxuko bi koadro instalatuz


Transformadoreen kokapena berauetatik irteten diren tentsio baxuko lineek 180 m-ko luzera gaintzea sahiestuko duten moduan jarriko dira, tentsio erorketak ekidin ahal izateko.

Azkenik, RV 0,6-1 kV 3(1x240/150) Al motako kablez osatutako linea elektrikoa proiektatu da, transformazio zentruetarako deribazioak RV 0,6-1 kV 3(1x150/90) mm² Al kablez burutuko dira, proiektaturiko tentsio baxuko transformazio zentruen koadroeatik ezkaratzen alboan kokatuko diren babes-kutxa orokorretaino.

Etorkizuneko etxebizitzetara egin beharreko hartuneak 160 mm-ko kanpo-diametroa duten TPC-zko bi tutuz osatuko dira. Espaloietan M2-T2 motako tapa eta galtzadetan M3-T3 motakoa duten eta 1,00 x 1,00 m-ko oinarria, 0,70 x 0,70 burua eta 1,00 m-ko sakonera duten kutxatila tronko-piramidalak kokatuko dira.

Guztia konpainia hornitzailearen xehetasunen arabera proiektatuko da.

e) Argiteria publikoaren sarea



Egun dagoen argiteria sare guztiaren aldaketa aurreikusi da proiektatu den urbanizaziora egokitu dadin. Hala espazio libre eta bide guztien perimetroan luminariak kokatu dira, esparru guztiaren azaleran argiztapen maila egoki bat bermatzeko eta egun gauzatze fasean dagoen Sarratu Area mugakidean erabili diren luminaria tipologia bera jarriko da Azbarrenen ere.


Argiteria berriarentzat bi agente-zentruen instalazioa aztertu da, 34.1. egikaritze-unitatean bata, Bizkotxaldeko adarretik Azbarren erdiguneko plazarako sarreran, eta 34.2. egikaritze-unitateari dagokiona bigarrena, Uribarriko ingurabidearen bukaeran.

Argiteria kobrezko kable malgu unipolarrez elikatuko da, polietileno korrugatuzko tutuerietan kanalizatua eta kanalizazioa kobre biluziko lur-hartze sareaz hornituko da.

Kanalizazioak luminaria bakoitzaren azpian kokatuko den 40 x40 cm-etako kutxatila erregistragarriak lotuko ditu eta kutxatilek bi hizkuntzetan "Argiteria publikoa" errotuluz markatutako burdinurtu harikorreko tapak izango dituzte. Konexio-kutxatila bat utziko da egikaritze-unitateen mugan, bi fasetan egingo ahal izango diren lanetan sarearen jarraipena bermatu ahal izateko.

Bideen mugan 10 m-ko altura izango duten luminariak kokatuko dira, Sarratu Arearen urbanizazioan erabilitako modeloari jarraituz, plaza-parkean 4 m-ko luminariak instalatuko diren bitartean, hiri-espazioari eskala gizatiarrago eta atseginago bat emanez.

f) Telekomunikazioen sarea



Egun, jarduketa esparruaren telefonia eta komunikazioen sarea, gunearen hegoaldeko perimetroan dago.

Aurregitasmo honetan eremua hornitzen duten lineen lurperatzea aurreikusten da, konapinia teknikoaren espezifikazioen arabera, kasu honetan Telefonica eta Euskaltel.

Kanalizazioak komunak izango dira Euskaltel eta Telefonikarentzat, hiruko filetan kokaturiko 8 tutuz osatuak. Horietatik lau Telefonica-rentzat izango dira eta gainerako lauak Euskaltelentzat. TPC motako kanalizazioak babestu egin beharko dira.


Uribarriko ingurabidearen kasuan, Telefonica-k badu iada bere sare-hornitzailea, eta beraz, Euskaltel-en sarea kanalizatu beharko da soilik. Kutxatila guztiak aurrefabrikatu eta erregistragarriak izango dira, konpainiek zehaztuko dituzten tapa eta marka zehatzekin.

g) *Gas naturalaren banaketa-sarea*

“U.07.7.- Gas naturalaren banaketa-sarea” planoan agertzen den moduan, Basaurik duen PE 110 mm diametroko sarera konektatuko da eremu guztia hornituko duen barne-sarea, eraikin guztietara iritsi arteko tarteak diametro bereko tutuekin burutuz.

Fatxada bitarteko hartuneak PE 63 mm diametrodun tutuz osatuko dira. Gasaren tutueria guztia poluzioaren aurkako 150 mm-ko lodiera izango duen hondar-ohéen gainean kokatuko da eta hondar berarekin estaliko dira tutuaren gainetik 200 mm-raino. Gero, tutuaren gainean banda seinalizatzailea kokatu, 30 cm-ko zagor-legar kapa bat gainean zabaldu, HM-20 motako 15cm hormigoi masa sendogarri den kapaz estali eta azkenik, lubakia zagor-artifizalez beteko da.


Ukondo eta balbula erregistragarriak izango dituen sarea diseinatuko da, etorkizunean sarearen gaineko kontrol handiagoa edukitzea ahalbidetuko duena.



h) *Hiri-hondakin solidoen bilketa neumatikoaren sarea*

Hondakin bilketa neumatikoaren sarea, 34.1. egikatzeko-unitateko espazio-libreen perimetroan kokaturiko hiru buzoi irlaz osatzen da. Sare berria, egun Matxitxako kalean eta Uribarriko ingurabidean zerbitzuan dagoen sare orkorrera konektatuko da, Uribarriko Parkean dagoen Hiri-hondakin solidoen zentraleraino.

Konduktuetako tutueria 500 mm diametroko altzairuzko tutuez osatzen da jarduketa integratuko eremuaren hondakin bilketa sarea osatzen duten bi kolektoreetan (Bizkotxaldeko adarra, A eta Uribarriko adarra, B).



Gauzatu beharreko obra-zibila ondoren azaldu da:

- Lubakiak zabaltzea, 500mm –ko kanpo diametroa duten altzairuzko tutueria kokatzeko planoek zehazten duten ebaketa tipoen arabera. Lubakien batez-besteko sakonera 2,50 m-koa izango da.
- Kareharri-hondar trinkotuaz tutueria estaltzea.
- ZA-40 zagor-legarrez lubakia lur-kotaren altueraraino betetzea, 30cm-ko lodieran zabaldu eta trinkotua.
- 1,5x1,5 m-ko azalera eta gehienezko 2,50 m-ko altuera arte altuera aldakorra duten kutxatila erregistragarrien exekuzioa. Oin bateko adreiluz edo 1,20 m-ko altuerara arte HA-25/P/20/Ila hormigoiz egindako hondoa eta lur-kotara iritsi arteko tartea homigoi aurrefabrikatuz egindako eraztun edo konoekin osatuko da. Burdinurtu harikor D-400-rekin egindako Rexel motako tapa erregistragarriak, arketa eta tutuen arteko UBE-CL-1010 motako lotura iragazgaitzak, txapazko ST 37.2 eta 5mm-ko hodi-babesgarriak eta 10mm-ko plastiko-mintza.

- Adarren bukaerako 2,50 x 1,40m eta 3,00 m-ko barne-altura duten arketen gauzatzea. Oinarria HA-25/P/20/IIa hormigoi armatuz egingo da, B 500 T, 15.15.10. mailazo eletrosoldatuz. Zola, paramentu bertikal eta forjatuaren lodiera 30 cm-takoa izango da.

Seinalizazio eta balizajea

Seinalizazio horizontal eta bertikalak definitzeko Obra Publiko, Garraio eta Ingurumen Ministerioaren 8.1-IC "inalizazio bertikala" y 8.2-IC "Bide-markak" Arauak jarraitu dira.

Balizajea seinale islatzaile bertikal eta marka islatzaile horizontalek osatzen dute.

Fabrika-lana

Jarduketa eremuak burdinbideekin duen mugan hormigoi-aurrefabrikatuzko horma baten egikaritzea proiektatu da.

Hormaren lerrokatzea, esparrutik gertuen dagoen burdinbideen erreia-ardatzetik 9,20 m-ko gutxieneko distantzia mantenduz gauzatuko da.

Hormaren zapata, 10 cm-ko lodiera izango duen HM-20 garbiketa-hormigoi kapa baten gainean bermatu eta B500S altzairuzko barra elektrosoldatu eta HA-25/P/20/IIa hormigoi armatuz osatuko da.

Hormaren paramentu bertikala hormigoi aurrefabrikatuzkoa izango da eta 2,40 m-ro horma-bular bat izango du. Hormak 20 cm-ko lodiera izango du eta kanpo-aldeetik harri-lauzaz estaliko da. Horma-gailurra 0,60 m-ko zabalera eta 0,20 m-ko lodiera izango duen hormigoi-armatuzko gailurra aurrefabrikatuz errematatuko da eta uztai honi lotuko zaio barandilla.

D.4. URBANIZAZIOAREN BEREZKO ZERBITZUAK HORNITZEKO ERREKURTSO ERABILGARRIAK. ERREKURTSOEN ERDIESPENAREN BIDERAGARRITASUNA

- *Ur-edangarriaren banaketa-sarea*

Basaurik eremua hornitzeko metatze eta erregulazio gaitasun nahikoa duen Bilbao-Bizkaia Patzuergoaren hornikuntza sistemara konektatuta dagoen ur horniketa sarea du. Basaurik egun duen ur-edangarriaren banaketarako tokiko saretik, Uribarri ingurabidean dagoen elikatze adarretik FD 100 mm-ko diametroa duen tutueria hargune-adarra proiektatu da ekialdetik-mendebaldera. Urbanizazio-Proiektuak ur-sare bat aurreikusiko du eremuan, hirigunearekin kontaktuan. Tokiko sare honek FD 100 mm-ko diametroa dute banaketa tutueria izango du eta sare horrek, partzela eraikigarrietako eta espazio libreetan kokatuko diren elementu ornamentalak, iturrietako, harguneak izango ditu.

- *Ur-beltzen eta euri-uren saneamendu-sarea*

Basauriko saneamendu sarea, sare-banatzalea da orokorrean, sare-bateratua mantentzen duten puntu batzuk salbu, jarduketa-eremuaren mugan burdinbideak zeharkatzen dituen kolektorearen kasu. Esparruaren ipar-mendebaldean eta

hegoaldean PVC eta homigoizko 315-500 mm-ko diametroa duten eta praktikoki jarduketa integratuaren gune guztia zerbitzua ematen dioten kolektore-banatzailak daude. Uribarriko ingurabidearen eta Kantabria kalearen arteko bidegurutzean sare-banatzaila, sare-bateratua bihurtzen da, PVC-zko 630 mm-ko diametroa duen tutu batez burdinbideak gurutzatzeko.

Basauriko udalak urbanizazio-proiektuan kontuan hartuko den euri-uren eta ur-beltzen ebakuazioaren azterketa xehatu bat eskatu beharko du. Horrela arazoari aurrea hartuz, aurreko paragrafoan aipatu den bidegurutzetik aurrera sarea banatzaila izatea aurreikusi du aurregitasmo honek, Cervantes etorbideraino burdinbideak gurutzatuko dituen kolektore berri bat proiektatuz.

Euri-uren kolektoreak PVC-ko 250-315-500 eta 630 mm-ko diametroa duten tutuak dira. Gainera, euri-ura jasoko duten estolda-zulo eta saretak aurreikusi dira, urbanizazio zein bere isurialde gune guztietan.

Ur-beltzen kolektoreak PVC-ko 315 eta 630 mm-ko diametroa dute eta etxebizitzetarako hartuneak 250 mm-ko diametroa izatea aurreikusi da.

- *Bide-azpiegitura, ibilgailuen aparkalekuak barne*

Jarduketaren deskribapenean azaldu den bezala, egitura-bideak udalerriko Bide Sare Orokorren parte dira. Jarduketa-integratuaren esparruan proiektatu den kale berriak berriz Tokiko Bide Sarea osatzen du, Kantabria kalearekin batera. Bide-egitura eskema honek esparrua egun hiriguneak duen sarearekin lotzeko funtzioa betetzen du eta hirigunearen barnean bertan egituratzen da.

Aurregitasmo honek, kale bakoitzaren ebaketa, kota erreferentziak, ezaugarri-geometrikoak eta lerrokadurak aztertu ditu, eremuaren zein aparkalekuen irisgarritasuna eta zirkulazioa bermatuta geratzeko moduan.

Aparkalekuak

Aire librean aparkaleku dotazio maximo baten kontzentrazioa bermatu nahi izan da, erabilera intentsitate handiena duten eremuko guneetan, izan erabilera publiko (ekipamendu eta espazio libreen tokiko sistemak) zein pribatuak (bizileku pribatuko guneak).

Linea eta baterian antolaturiko aparkalekuak aurreikusi dira iparraldeko kale berrian eta Uribarriko ingurabidean, perdoi tarte zabala utzi da partzela pribatuen barnean, eremuaren aparkaleku publikoen dotazioa osatuko duten aparkaleku guztiak kokatu ahal izateko eta hala, 123/2012 Estandarren Dekretuak ezartzen dituen baldintzak betetzeko. Mugikortasun mugatua duten pertsonak garraiatzen dituzten ibilgailuen aparkalekuen gutxieneko neurriak ezartzen dituen 68/2000 Dekretua ere errespetatzen da (hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen dekretuaren III. Eranskineko 3.1.1. artikulua, hiri-inguruneen irisgarritasun-baldintza teknikoei buruzkoa).

- *Elektizitatearen banaketa-sarea*

Egun eremuan barneratzen diren erdi mailako tentsioa duten aire-lineak aldatu eta zuzkidura-zerbitzua berrezari beharko da. Eremurako energia elektrikoaren hornikuntza egungo sarearen konexio eta esparruaren barnean kokatuko diren transformazio zentruen bitartez bermatuko da. Transformazio zentruetatik, irabaziak dituzte partzelak, espazio libreak eta eremu guztiko kanpo-argiteria hornituko da.

- *Telefonia eta telekomunikazioen sarea*

Egun Basauriko hirigunean dagoen telefonia sarea, hirigunearen perimetroan antolatu den eremu berriko konexioaren oinarri izango da, zuzkidura konpainien zehaztapen eta araukin bat eta bide-azpiegituran bermatuz. Telekomunikazioen sistemarako zuzkidura konpainien zerbitzu sareetara konektatu daitezkeen kanalizazio laguntzaileak aurreikusi dira eremuaren azalera guztian.

- *Gas naturalaren banaketa-sarea*

Esparruaren muga, eremuaren sarea zuzenean konektatu daitezkeen gas-sare bat dago egun. Gas banaketa sarearen enborra 110 mm-ko diametroa duen dentsitate ertaineko polietilenoazko tutuez proiektatu da, adarrak 63 mm-ko diametroa eta hartuneak 32 mm-ko diametroa izango dutelarik.

D.5. URBANIZAZIOAREN EGIKARITZE-FASEAK

Urbanizatzeko aurreitasmo honek urbanizatzeko lanen exekuzioa bi faseetan banatzen du, "B.5.- Esparruaren egikaritze epea" atalean adierazi den moduan:

- 1. FASEA: E.U. 34.1. egikaritze-unitatearen urbanizatzeko lanak.
- 2. FASEA: E.U. 34.2. egikaritze-unitatearen urbanizatzeko lanak.

D.5.1. E.U.34.1. ESPARRU ESPAZIALARI DAGOKION 1. FASEAREN DESKRIBAPENA

Jarraian urbanizatzeko lanetan aurrekisetako azpi-faseak:

- 1.1. azpi-fasea: azpi-fase honetan, lur-mugimenduak eta kalteturiko urbanizazio-elementuen eraispena, kalteturiko zuzkiduren tratamendua, eremua burdinbidetik bereiziko duen euste-horma, bizitoki-erabilerako eraikinen lur-azpiko solairuen hormak eta oinarritzko azpiegitura teknikoak eta ur-beltzen eta euri-uren egungo saneamendu sarea Uribarriko Ingurabidean dauden sareetara konektatzea izango dira burutu beharreko lanak.
- 1.2. azpi-fasea: galtzaden eta oinezko-guneen zoladura lanak burutuko dira, hiri-altzariak, seinalizazioa eta balizajea kokatuko dira eta lanen errematea egingo da, azken honetan 2. fasean obra honi bukaera emateko errematea prestatutik utziko delarik.

Lehen faseari burdinbideak zeharkatuko dituen ur-beltzen saneamendurako banaketa-kolektorearen exekuzioa gehitu zaio, garrantzitsutzat jo baita saneamendu sare guztia hasieratik banatzailea izatea (euri-uren sarea eta ur-beltzen sarea).

Egikaritze-unitate bakoitzari esleitutako lanen gehiengoa, unitate bakoitzaren eremuari dagokio soilik. Hala ere, badira lehenago garatzeko kontsiderazio jaso dezaketeen partidak, burdinbideak zeharkatuko dituen banaketa-kolektorearen kasua esaterako.

Urbanizatzeko-aurregitasmo honetan buruturiko banaketarekin, urbanizatzeko-kargen banatzea orekatua da.

Esparrua garatzerakoan, bi egikaritze-unitateak barne hartuko dituen urbanizazio proiektu bakarra idaztea aukeratu eta unitateen artean desorekaren bat hautemango balitz, bi unitateen egikaritzeari on egingo liokeen aurrekontuaren partiden distribuzio desberdin bat egin liteke, urbanizazio kargen banaketan aldaketa sotal bat burutuz.

D.5.2. E.U.34.2. ESPARRU ESPAZIALARI DAGOKION 2. FASEAREN DESKRIKAPENA

E.U.34.2.-ko urbanizatzeko-lanak, E.U.34.1.-ko egikaritze-unitateko lanei jarraipena emango die. Urbanizatzeko-lanetan aurreikusitako azpi-faseak ondokoak dira:

- 2.1. azpi-fasea: "J-Azbarren" esparruan Pangintza Orokorak antolamenduz kanpo utzitako eraikinaren eraispina azpi-fase honetan burutu beharko da, baina lur-mugimenduen exekuzioa, kalteturiko urbanizazio elementuen eraispina, kalteturiko zuzkiduren tratamendua, eremua burdinbideetatik bereizteaz gain eraikitze-kotan jarriko duen aurre-fabrikatutako euste-horma, bizitoki-erabilerako eraikinen lur-azpiko solairuen hormak eta oinarritzko azpiegitura teknikoa eta biribilgunea eraiki ahal izateko aldi-baterako desbideratzeak ere.
- 2.2. azpi-fasea: azpi-fase honetan, galtzaden eta oinezko-guneen zoladura lanak burutuko dira, Kantabria kaleko eta Uribarri Ingurabideko trafikoa berrezarri baino lehen. Hiri-altzarien, seinalizazioaren eta balizajearen kokapena, lanen errematea eta 1. fasean hasitako burdinbideen paralelo proiektatu den iparraldeko kalearen azken zatia irekiera dira azpi-fase honetan garatu beharrekoak gainerako lanak.

D.6. URBANIZAZIOAREN KALITATEEN MEMORIA

Urbanizatzeko-aurregitasmo honen aurrekontua egiteko, hurbileko guneekin bat datozen akabera materialak eta kalitateak (zoladura, argiteria, altzariak etab.) aukeratu dira, hala nola, alboan dagoen Sarratuko Areakoak.

Ordea, erabiliko diren kalitate eta materialak Urbanizazio-Proiektuak definituko ditu behin-betiko eta hauek Basauriko Udaltzaletako Bulego Teknikoko teknikoei adostuko dira.

D.8. AURREKONTUA

Jarraian, partidaka, lanen kostuaren estimazioaren aurrekontu xehatuaren laburpena atxiki da. Urbanizazio-lanen gauzatze materialaren balioa (GMA) 4.356.374,41 €-koa da B.E.Z.-ik gabe. Gastu orokorrak eislepen-gauzatzearen aurrekontuaren (EGA) %19-a eta irabazi industrialak %6-a dira, eta ondorioz, oinarri lizitagarriaren aurrekontua 5.445.468,01 €-koa izango da.

Oinarri lizitagarriaren aurrekontuari B.E.Z.-a gehituz gero, "J-Azbarren" jarduketa integratuaren esparruaren Urbanizatzeko Aurregitasmoaren aurrekontua guztira 6.589.016,30 €-koa da.

Bilbon, 2.019ko martxoan

Arantza Ruiz de Velasco Artaza

URBANIZAZTE-AURREGITASMOA, E.U.34 AZBARREN, BASAURI

KODEA	Laburpena	E.U.34.1.	E.U.34.2.	GMA kapituluak
01	LUR-MUGIMENDUAK	175.146,65 €	229.182,24 €	404.328,89 €
02	UR-EDANGARRIAREN BANAKETA	56.360,40 €	38.165,20 €	94.525,60 €
03	UR-BELTZEN SANEAMENDUA	72.885,31 €	21.149,55 €	94.034,86 €
04	EURI-UREN SANEAMENDUA	97.267,47 €	89.829,93 €	187.097,40 €
05	ELEKTRIZITATEA	144.731,96 €	82.535,52 €	227.267,48 €
06	ARGITERIA PUBLIKOA	163.441,73 €	143.865,35 €	307.307,08 €
07	TELEKOMUNIKAZIOAK	45.048,40 €	23.688,66 €	68.737,06 €
08	GASA	43.604,83 €	23.110,86 €	66.715,69 €
09	HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK	433.941,74 €	0,00 €	433.941,74 €
10	ZOLADURA	777.482,95 €	584.690,51 €	1.362.173,46 €
11	SEINALEZTAPENA	7.566,49 €	8.459,60 €	16.026,09 €
12	FABRIKA LANAK	483.307,25 €	404.261,00 €	887.568,25 €
13	LOREZAINZA	68.171,31 €	6.848,15 €	75.019,46 €
14	HIRI-ALTZARIAK	7.193,16 €	3.073,24 €	10.266,40 €
15	KALTETURIKO ZUZKIDURAK	18.092,80 €	18.092,80 €	36.185,60 €
16	BESTELAKOAK	3.000,00 €	3.000,00 €	6.000,00 €
17	SEGURTASUN ETA OSASUNA	22.852,87 €	14.167,81 €	37.020,68 €
18	KALITATE KONTROLA	15.018,05 €	9.310,56 €	24.328,61 €
19	RCD-aren GESTIOA	11.006,50 €	6.823,56 €	17.830,06 €
GUZTIRA GMA		2.646.119,87 €	1.710.254,54 €	4.356.374,41 €
GASTU OROKORRAK		502.762,78 €	324.948,36 €	827.711,14 €
IRABAZI INDUSTRIALA		158.767,19 €	102.615,27 €	261.382,46 €
GUZTIRA EGA		3.307.649,84 €	2.137.818,18 €	5.445.468,01 €
B.E.Z.		694.606,47 €	448.941,82 €	1.143.548,28 €
GUZTIRA B.E.Z.-a BARNE		4.002.256,30 €	2.586.759,99 €	6.589.016,30 €

E Dokumentua:

BIDERAGARRITASUN AZTERKETA – EGIKARITZE-UNITATEEN MUGAKETA

E.1. SARRERA

“J-Azbarren” Area plangintzak osoki Babes-Ofizialeko Etxebizitzetara bideratutako esparrua da, eremua osatzen duten sei etxebizitza eraikinetetik lau eraikinetako behe solairuetan erabilera komertziala eta zuzkidua etxebizitzaren irabazirik gabeko erabilera integratzen dituela aipatzea.

Higiezinaren merkatua plangintzak proposaturiko etxebizitza kopuruaren, 345 etxebizitzaren, eskaintzak jasotzeko gai denaren premisa abiapuntu, esparruaren bideragarritasun ekonomikoa hondar-balio positiboak zehaztuko luke hasiera batean, hondar-balio honi urbanizatzeko-lanen, gestio-gastuen eta momentuan-momentuko indemnizazioaren kostuak kendu ondoren.

Esparrua osatzen duten partzela guztien lurzoru urbanizatuaren hondar-balioen baturatik, esparru osoaren lurzoru urbanizatuaren hondar-balioa eskuratuko da.

E.2. ERAIKIGARRITASUN HAZTATUAREN UNITATEEN BALIOESPENA

Eraikigarritasun haztatuaren unitateen balioespena, metro karratu eraikigarri bakoitzaren lurzoru urbanizatuaren hondar-balioa da, zeina plangintzak antolatutako erabilerak aintzat hartuz kalkulatu den. “J-Azbarren” jarduketa integratuan ondoko erabilerak antolatu dira:

- 1.- Erregimen orokorreko babes-ofizialeko etxebizitzak.
- 2.- Babes-ofizialeko etxebizitzaren eranskinak, lur arras azpian.
- 3.- Lokal komertzialak.

Erabilera bakoitzaren eraikigarritasun haztatuaren unitatearen balioespena (Uep), Balioespen Erregelamenduko 22.2 artikulua dioenaren arabera burutuko da. Jarraian transkribatu da 22.2. artikulua:

22.2. aurreko atalean erreferentzia egiten zaien erabilera bakoitzari dagokion eragin-balioa, hondar-metodo estatikoaren bidez zehazten da, ondoko adierazpenaren arabera:

$$VRS=Vv/K - Vc$$

Non,

VRS= Kontsideratutako erabileraren metro karratu eraikigarriko lurzoruaren eragin-balioa, eurotan.

Vv= Kontsideratutako erabileraren amaitutako produktu higiezinaren eraikuntza metro karratu bakoitzaren salmenta-balioa, estatistikoki esanguratsua den merkatuaren azterketa oinarri hartuz kalkulatua, metro karratu eraikigarriko eurotan.

K= Gastu orokor guztiak hartzatzen dituen koefiziente, finantziario, gestio eta sustapen gastuak barne, baita eraikigarritasuna gauzatzeko beharrezkoa den higiezinaren sustapenaren jardura enpresarial normalak eskatzen dituen irabaziak ere.

K koefiziente hau, orohar 1,40 balioa izango duena, ondorengo irizpideekin murriztu edo handitu daiteke:

a) Gutxieneko 1,20 baliora murriztu ahal izango da higiezinaren-dinamika eskasa duten udalerrietan etxebizitza familiabakarrak eraikitzea bideratutako lurzoru urbanizatuaren kasuan, baita babes erregimenei lotuta dauden etxebizitzenean ere, beti ere erregimenak etxebizitza merkatuari dagozkion batez besteko balioetatik funtsezko moduan aldentzen diren gehieneko salmenta-balioak finkatzen baditu; ustiapen ekonomikora bideratzen diren nabe industrial edo eraikuntzetan, kalitate eta eraikuntza tipologiko lotutako gastu orokorren osagaia murriztea justifikatzen duten faktore objektiboen arrazoipean edo gureko higiezin-merkatuaren dinamika txikiaren...

Vc= Kontsideratutako erabileraren metro karratu eraikigarriko eraikitze-balioa, eurotan. Lanen gauzatze materialen kostuak, eraikitzailearen gastu orokorrak eta irabazi industrialak, eraikuntza zergapetzen duten tributoen balioa, proiektu eta obra zuzendaritzari dagozkien hobari-teknikoak eta eraikuntza gauzatzeko beharrezkoak diren gastuak gehituz kalkulatu da.

Jarraian erabilera bakoitzaren salmenta-balioa, K koefiziente eta eraikitze-balioa xehatuak.

E.2.1. ERAIKIGARRITASUN HAZTATUAREN UNITATEEN BALORAZIOA – ERREGIMEN OROKORREKO BOE-ren 1M²

Erregimen Orokorreko Babes-Ofizialeko Etxebizitzaren salmenta-balioa

Babes-Ofizialeko Etxebizitzaren eta hauen eranskinen gehieneko prezioa Etxebizitza, Herrilan eta Garraioetako Sailaren 2010eko azaroaren 3ko Aginduak arautzen du; bertan, babes-ofizialeko etxebizitzaren gehieneko prezioak zehazten dira. Agindu honek etxebizitzaren azaleraren arabera salmenta-balioen tarteak zehazten ditu, etxebizitza txikiaren m²-ko balioa garestiagoa izanik etxebizitza handien aldean eta 75m²-ak gainditzen dituzten etxebizitzaren salmenta-balioa penalizatuz. Aginduak Basauriko etxebizitzentzat 1.629,31€-ko balioa ezartzen du m² erabilgarriko; lehen 45m²-ak 1,15 koefiziente batez biderkatuko dira, ondorengo 15m²-ak (60m²-tik 75m²-ra) 1,1 koefizienteaz, hurrengo 15m²-ak 1 koefizienteaz eta 75m²-tik gorako metroak 0,8-z.

Azaberren Arearako Hiria Antolatzeke Plan Orokorraren aldaketak, eraikigarritasun geometrikoak eta eremuko etxebizitza-bloke bakoitzeko etxebizitza kopuruak ezartzen ditu. Aldaketak proposaturiko antolamenturekin eta eraikigarritasun-geometrikoekin, baita bertan zehazturiko eraikinen lerrokatzeak eta altueren bitartez, eraikin erresidentzialen solairuen azalera eraikiak kalkulatu dira. Era honetan kalkula daitezke etxebizitzaren batez-beste azalera erabilgarriak, etxebizitza erabilera duen azalera eraikia 1,30 koefizienteaz zatituz (azalera eraikia/azalera erabilgarria). Antolamenduaren dokumentazio grafikoan ikusi daitekeen moduan, etxebizitza eraikinen profilak ez dute 28 metroko altura gainditzen, eta beraz, ez da beharrezkoa izango sutearen kasurako bigarren ebakuazio eskailera bat eraikitzea. Hala, azalera eraikia/azalera erabilgarria ratioa handiago da eraikin erresidentzial altuenetan.

Partzela Eraikigarriak	Azalera	Erabilera Behe Sol.	Eraikigarritasuna Behe Sol.	Eraikigarritasuna Goi Sol.	Eraikigarritasun Geometrikoa	Azalera eraikia	Koe.	Azalera erabilgarria	Etx. Kop.	Azalera eraikia batez beste/etx.	Azalera erabilgarria batez beste/etx.
NJ1	1.050,00	LC	700,00	4.200,00	4.900,00	4.260,00	1,30	3276,92	40	106,50	81,92
NJ2	1.872,00	LC	570,00	4.300,00	4.870,00	4.390,00	1,30	3376,92	40	109,75	84,42
NJ3	1.836,00	LC	565,00	7.296,00	7.861,00	7.386,00	1,30	5681,54	72	102,58	78,91
NJ4	1.495,00	LC	355,00	4.928,00	5.283,00	4.988,00	1,30	3836,92	48	103,92	79,94
NJ5	1.490,00	Viv	616,00	5.544,00	6.160,00	6.160,00	1,30	4738,46	58	106,21	81,70
NJ6	1.860,00	Viv	924,00	8.316,00	9.240,00	9.240,00	1,30	7107,69	87	106,21	81,70

Partzela bakoitzari dagokion batez-beste etxebizitzaren azalera erabilgarriekin, metro karratu erabilgarrien salmenta-balioak kalkulatu dira horretarako lehen deskribatu den metodoa jarraituz. Metodoa ezarri zuen aginduaren bitartez BOE-en gehienezko prezioak zehaztu ziren.

NJ1 Partzela						
Azalera erabilgarria batez-beste/etx.						81,92 m ² .eb
45 m ² .eb-raino		45,00 m ²	1,15	1.629,31 €	1.873,71 €	84.316,79 €
45-60 m ² .eb artean		15,00 m ²	1,10	1.629,31 €	1.792,24 €	26.883,62 €
60-75 m ² .eb artean		15,00 m ²	1,00	1.629,31 €	1.629,31 €	24.439,65 €
